GIPUZKOAKO GIZARTE
LANGINTZAREN ELKARGO
OFIZIALA

COLEGIO OFICIAL
DE TRABAJO SOCIAL
DE GUIPUZKOA

ELKARGOKIDEEN OHIKO ASANBLADA OROKORRA

2019/02/21

✉ Javier Barkaiztegi, 21, sol.art. C 20010 Donostia - ☎ 943 473 287 · 🖷 943 473 070
gipuzkoa@cgtrabajosocial.es
www.trabajosocialgipuzkoa.org

ELKARGOKIDEEN OHIKO ASANBLADA OROKORRA
2019/02/21

GAI-ZERRENDA

1) Aurreko aktaren irakurketa eta onarpena.
2) Urteko jardueren Txostena 2018
3) Lan-Plana 2019
4) Balantze ekonomikoa 2018 eta Aurrekontua 2019
5) Gobernu Batzordeko kideen berritzea
6) Erregu eta galderak

✉ Javier Barkaiztegi, 21, sol.art. C 20010 Donostia - ☏ 943 473 287 · 🖷 943 473 070
gipuzkoa@cgtrabajosocial.es
www.trabajosocialgipuzkoa.org

ASANBLADA OROKORRAREN AKTA

GOBERNU BATZORDEA

BERTARATUAK:

Presidentea: Coro Amunarriz
Presidenteordea: Rosa Ugalde
Diruzaina: Carmen Valois
Bokala: Carla Urbiola

EZIN-ETORRIA ADIERAZI DUTENAK:
Idazkaria: Oihane Arzelus

Donostian, **2018ko martxoaren 14ean**, Gipuzkoako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialeko egoitzan, 17:00tan lehenengo deialdian eta 17:30tan bigarren deialdian, aipatzen diren pertsonen bertaratzearekin, Asanblada Orokorrari hasiera ematen zaio ondorengo Gai-Zerrendarekin:

1) Aurreko aktaren irakurketa eta onarpena
2) Urteko jardueren txostena 2017
3) Lan-Plana 2018
4) Balantze ekonomikoa 2017 eta Aurrekontua 2018
5) Erreguak eta galderak
6) Ohorezko elkargokideen izendapena

ELKARGOKIDEAK:

BERTARATUAK:

Alvaro Gallo
Miren Martínez
Natalia Pérez
Santi Zaldua
Pablo García
Mari Irazusta
Patricia Sánchez
Maria Luisa Agirretxe
Leire Irastorza
Leire Poyato
Xabier Arrieta (Ohorezko elkargokidea)

EZIN-ETORRIA ADIERAZI DUTENAK:
-Belen Larrion
-Sergio Corchón
-Virginia Peña
-Noelia Monreal
-Leire Zubizarreta
-Loredi Salegi
-Maialen San Sebastian
-Ayem Oskoz

1.- AURKEZPENA ETA AURREKO AKTAREN ONARPENA

Coro Amunarrizek eskerrak ematen dizkie bertaratu diren guztiei eta bilkuran landuko diren gaiak aurreratzen ditu.

Alegaziorik ez dagoenez, aurreko urteko akta onartzen da.

Gobernu Batzordekideak aurkezten ditu. Pili López eta Beatriz Ávilak bere karguak utzi zituztela eta Oihane Arzelusek (Idazkaria) ezin etorria adierazi duela gaurko egunean.

Gainera, Leire Irastorza seme/alabaren zaintzarengatik eszedentzia egoeran dagoela dio eta 2018.urtean, Leire Poyato izango dela Elkargoko arduraduna.

2.- JARDUEREN TXOSTENA 2017

2017. urtearen zehar egin dena laburbiltzen dute Rosa Ugalde eta Carla Urbiolak (jarduera guztiak txostenean zehaztuta daude, bertaratu diren guztiek ale bat dute).

Elkargokidetzaren berri ematen hasten da Carla: altak, bajak, jubilatuak….2017 urtearen amaieran, 679 elkargokide daude, hauetatik 70 jubilatuak.

Txosteneko atal desberdinak jarraituz, Kudeaketa eta Komunikazio batzordeak lanean jarraitzen dutela, aldizka biltzen dira. Gobernu Batzordeko kide berberez osatuta daudela dio baina ohiko hileroko bilkuretatik kanpoan geratzen diren gaiak jorratzen dituztela.

Kontseilu Orokorraren bidez sortutako lan-talde baten garrantzia aipatzen du Rosak, estatu mailan Gizarte Zerbitzuen eredu bateratua lortzeko taldea. Gipuzkoatik hiru pertsona daude lan-talde horretan, hauen artean, Rosa bera eta Coro (Presidentea), Kontseiluak ezarritako lan blokeak jorratzeko egiten ari diren esfortzua handia dela dio. Beste Elkargo Ofizialetako ordezkariekin hainbat bilkura egingo dituzte aurten eta urtearen erdialdean, Madrilen jardunaldi bat antolatuko da, jasotako emaitzen berri emateko.

Gizarte Politikako Departamentuari atxikituta dagoen babes teknikoko zerbitzua kontratatzeko gaiaren inguruan , haur eta nerabeen babesgabezi egoerak baloratu eta babesgabez egoera larriak koordinatzen dituena, Alvaro Gallok gogorarazten du Elkargoak errekurtsoa aurkeztu zuela 2017. urtean, klausula administratibo partikularreko baldintza teknikoekin ados ez zegoelako.

Kontrataziorako prozeduraren tramitazioa eten egiten zen errekurtsoari irtenbidea eman arte. Auzitegiak atzera bota zuen eta ez zituen aurkeztutako argudioak kontutan hartu.
Kontseilu Orokorrari eta SECUM (Merkatuen batasuna bermatzeko Kontseiluko Idazkaritza) entitateari ere aholkularitza eskatu zaio.

Alvaro, Rosa eta Corok diotenez berriro ere ez da errekurtsorik jarriko zeren eta gerta daiteke Elkargoak prozesu guztiaren zehar sortu diren kostu guztiei aurre egin behar izatea, hauen artean prozesuan barne parte hartu duten pertsona guztien soldatak eta kostuak.

Azpimarratzen dute, gutxienez Foru Aldundian badakitela Gizarte Langintzako profesionalak "begira" daudela eta kontzientziazio lanetan jarraitzen dutela, Gizarte Langintzako titulazioa daukatenek baztertuak izan ez daitezen.
Rosa Ugaldek aipatzen duenez, prozesu guztian Deustuko Unibertsitatearekin lan egin zen, bi erakudeen artean txostena aurkeztu zen eta bertan Gizarte Langilearen irudia beti egon dela adingabekoei lotuta adierazten zen, kolektibo honekin betidanik lan egin dela eta kolektiboarekin lan egiteko ikasleek ikasten dituzten materia espezifikoak ere aurkezten ziren txosten berberan.

Eusko Jaurlaritzako eta Donostiako Udaletxeko hainbat batzordetan ere parte hartzen dela adierazten dute, azken hauetara Rosa Ugalde bertaratzen da. Urteko txostenean agertzen diren atal guztiak komentatzen jarraitzen da.

Gobernu Batzordea berritzea "tokatzen" dela dio Coro Amunarriz eta urtearen amaieran hauteskunde deialdia egingo dela azaltzen du.

3.- LAN-PLANA 2018

Elkargoaren egungo egoeraren balorazioa egiteko eta analisi-diagnostikoa lantzeko, hainbat elkargokideren partaidetza izan dugu, datozen urtetan jarraitu beharreko ildoak finkatzeko ezinbestekoa da aurre analisia hori egitea. Horrela ba, Elkargoak dituen ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak aztertu dira, datozen lau urtetarako jarraitu beharreko ildo estrategikoak ordenatu eta lehentasuna eman ahal izateko.

4.- BALANTZE EKONOMIKOA 2017 ETA AURREKONTUA 2018

Rosa Ugaldek Elkargoko sail ekonomikoak zehazten ditu (bertaratu diren guztiek balantze eta aurrekontuaren kopia dute).
Zergarik gabeko egoera ekonomikoan aurkitzen da Elkargoa eta aurreko urteekin konparatuz, ez da mugimendu handirik egon. Sail batzuk aldatu dira eta dagozkien kopuruak aldatu dira, hauen artean, partaidetzako gastuei dagozkionak, otordu edo kilometraje ordainak, ostatua, joan-etorriak…mantenimendu informatikoari dagokion kopurua ere areagotu da.

Diru-sarrerei dagokionez, elkargokidetzak mantentzen dira (alta eta bajen arteko oreka) eta beraz, gastuei aurre egiteko arazo handirik ez dago. Iaz kontratatu zen aholkularitza enpresa berberarekin jarraitzen da lanean.

5.- OHOREZKO ELKARGOKIDEEN IZENDAPENA

Ohorezko elkargokideak izendatzen dira:

Xabier Arrieta
Reyes Gamiz

Eta besterik gabe, Asanblada amaitutzat jotzen da.

GIPUZKOAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE

JARDUEREN TXOSTENA

2018

AURKIBIDEA JARDUEREN OTXOSTENA 2018

O. AURKEZPENA 3

1. ELKARGOA, NORTZUK GARA? 4

1.1. ORGANIGRAMA 4

1.2. OHIKO ASANBLADA OROKORRA 4

1.3. GOBERNU BATZORDEKO BILKURAK 5

1.4. ELKARGOKIDETZAREN EGUNGO EGOERA 5

1.5. LAN-TALDEAK 6
- DSBE ALDAKETA
- GENERO INDARKERIAREN AURKAKO ESTATU PAKTUA
- ESTATU MAILAKO TALDEA – GIZARTE ZERBITZUEN EREDUA
- HAURTZARO ETA NERABEEN TOKIKO TALDEAK
- EUTANASIA ARAUTZEARI BURUZKO LAN-TALDEA

2. ELKARGOKIDEENTZAKO ZERBITZUAK 8

2.1. INFORMAZIO ZERBITZUA ETA AHOLKULARITZA PROFESIONALA 8

2.2. OPOSAKETAK ETA EPAIMAHAIAK 9

2.3 HAUTAKETA PROZESUEN JARRAIPENA 9

2.4. LAN ESKAINTZEN KUDEAKETA 10

2.5 ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA 10

2.6. LIBURUTEGIKO ZERBITZUA 11

2.7.ETENGABEKO PRESTAKUNTZA 11

2.8. TEKNOLOGIEN ERABILERA 12

2.8.1. E-POSTA PROFESIONALA 12

2.8.2. KOMUNIKAZIOAK EMAILEZ 12

2.8.3. WEB ORRIA ETA SARE SOZIALAK 12

2.9 GIZARTE ZERBITZUETAKO ALDIZKARIA 12

3. PARTAIDETZA ETA ERAKUNDETAN ORDEZKARITZA 13
3.1. GIZARTE LANGINTZAKO KONTSEILU OROKORRA 13
3.2. ELKARGOARTEKO BILKURAK 14
3.3. EUSKO JAURLARITZA 15
3.4. UDALAK 15
3.5. UNIBERTSITATE ETA ELKARGO PROFESIONALAK 15
3.5.1. UPV/EHUrekin HITZARMENA 15
3.5.2. GIZARTE LANGINTZAKO NAZIOARTEKO III. KONGRESUA. GIZARTE LANGINTZAKO FAKULTATE ETA ESKOLEN XII. KONGRESUA 16
3.5. 3 GIZARTE LANGINTZAKO XI JARDUNALDIA 17
4. FORMAZIOA 17
5. GIZARTE LANA BALIOZTATUZ 18
5.1 KODE DEONTOLOGIKOAREN EDIZIO BERRIA 18
5.2. GIZARTE LANEKO MUNDUKO EGUNA
5.3. NOMENKLATURA ZUZENAREN ERABILERA 18
5.4. GIZARTE LANGINTZA EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMAN 19
5.5 PRAKTIKA PROFESIONALAK
5.6. ELKARGOA KOMUNIKABIDEA 19
5.7 KANPAINEN ATXIKIMENDUA
5.8 HITZALDIA DEUSTON
5.9 ELKARGOKIDE KANPAINA

0. AURKEZPENA

Elkargokide agurgarriak

Aurten ere esku artean duzue Gipuzkoako Gizarte Langintza Elkargo Ofizialak aurkeztuta 2018. urtean zehar egindako ekintza Memoria.

2018.urtean gure Elkargoan eta Gizarte Langintzako Kontseilu Orokorrean ere hauteskundeak ospatu dira. Gure Elkargoan, Coro Amunarrizek Presidente kargua urtearen amaieran utzi zuen, lerro hauen bidez gure lanbidearen alde egindako lan guztia eskertu nahi diogu. Aldi berean, Gobernu Batzordean sartu dire hiru elkargokide berriei ere ongietorria eman nahi diegu.

Kontseilu Orokorreko hauteskunde prozesua ere azpimarratu nahi dugu, hiru hautagaitza aurkeztu ziren eta Emiliana Vicente González izan zen izendatua Presidente karguarekin. Bere lan taldean Álvaro Gallo aurkitzen da, elkargokidea eta 2014-2016 aldian, Elkargoko Presidentea izan zena. Zorionak!

Barne eta kanpo lanako ildoak horrela banatu ditzazkegu:

Barne mailan, bi Lan batzordetan lan egin da . Bata Komunikazio Komisioa, hau formakuntzaren antolaketaz arduratu da gehien bat. Eta Kudeaketa Komisioa, diruzaintzaren jarraipenaz eta Elkargoko Plan Estrategikoetaz arduratu da.

Kanpo mailan, Gizarte Langintzaren ikuspegitik arlo desberdinetan ekarpenak egin dira, hainbat jarduera eta erakunde eta entitate desberdinekin aliantzak sortu dira.

- EAEko suizidioa prebenitzeko Planari ekarpenak, harrera familiarreko Dekretuari....
- Foru desberdinetan partaidetza, gai sozialak mahaigaineratzen diren Kontseilu eta Organo desberdinetan presente egon ahal izateko.
- Komunikabidetan parte hartzeak (irratia,prentsa), Gizarte Langintzaren ikuspuntua jakinaraziz hainbat gaien inguruan.
- Kontseilu Orokorrak antolatutako estatu mailako lan-taldea, Gizarte Zerbitzuen Eredu bateratua lortzeko.
- Topaketa/hausnarketa gunea sortzeko proposamena Unibertsitate eta EAEko Gizarte Langintzako Elkarteen artean.
- Elkarte, entitate eta talde politikoekin kontaktuak eta bilkurak mantendu ditugu: Osasuna Sustatuz, EHBildu, Podemos etab.
- Gizarte Langile termino zuzena erabiltzeko adieraziz Administrazio Publiko eta entitateengana jo dugu.
- Elkargokidetzaren aldeko kanpaina bultzatu dugu, elkargokide zenbakiaren txostenak sinatzeko animatuz.
- Gizarte Langintzaren irudiaren defentsa esku-hartze sozialeko esparruetan, administrazio publiko eta entitate pribatuen aurrean.

Gobernu Batzordetik, modu batean edo bestean aurrera atera ditugun ekimenetan parte hartu duzuen elkargokide guztiei eskerrak eman nahi dizkizuegu.

"Altuera handiko mendi baten tontorrera iristen garenean beti ikusiko dugu badirela igotzeko tontor altuagoak" (Nelson Mandela)

Gobernu Batzordea

1. ELKARGOA- NORTZUK GARA?

1.1. ORGANIGRAMA



2018. urtean, Gipuzkoako Gizarte Langintzako Elkargo Ofizialeko Gobernu Batzordekideak berritzeko hauteskundeak ospatu dira, urtarrila 2019 eta urtarrila 2023 aldirako.

Coro Amunarrizek bere Presidente kargua abenduan utzi zuen eta Rosa Ugalde presideteordeak bereganatu zituen Presidente funtzioak. Elkargokide guztiei hauteskunde deialdia luzatu ondoren, hautagaitzak aurkeztera animatuz eta ezarritako epeak bete ondoren, abenduaren amaieran osatu zen Gobernu Batzorde berria:
Presidentea: Rosa Ugalde
Presidenteordea: Carla Urbiola
Idazkaria: Oihane Arcelus
Diruzaina: Carmen Valois
Bokalak: Pilar Abad, Soraya Ronquillo eta Ekhiñe Olano.

1.2. OHIKO ASANBLADA OROKORRA

Elkargokideen Asanblada Orokorra 2018ko martxoaren 14ean ospatu zen, 17 elkargokide bertaratu ziren. 7 pertsonak ezin-etorria adierazi zuten eta 2 Ohorezko Elkargokide izendatu ziren, jubilatu egin zirelako (ezin-etorria adierazi hauetako batek).

Parte-hartze urria izan arren, azken urtetan ohikoa den bezela (Gipuzkoako Elkargokideetatik %3a ere ez da iristen bertaratuen kopurua), Elkargoa jarraitzen ari den ibilbidea eta garai berrietara egokitzen ari den modua positibotzat jo zen, funtzeskoak diren arloetan Elkargoaren presentzia azpimarratu zen.

1.3. GOBERNU BATZORDEKO BILKURAK

11 aldiz bildu da Gobernu Batzordea 2018. urtearen zehar, honako datetan:

- Urtarrilak 3
- Otsailak 7
- Martxoak 7
- Apirilak 4
- Maiatzak 2
- Ekainak 6
- Uztailak 4
- Irailak 6
- Urriak 4
- Azaroak 8
- Abenduak 13

Duela hiru urte sortu ziren taldeekin lanean jarraitu du 2018. urtean, Elkargoari dagozkion gaietan sakondu ahal izateko, ohiko bileretan ezin direnak aztertu beste hainbeste erabaki hartu behar direlako egun hauetan. Horrela ba, Kudeaketa Batzordea sei aldiz bildu da eta Komunikazio Batzordea, bost aldiz 2018. urtean. Bi Batzorde hauek Gobernu Batzordeko kide berberak osatzen dituzte.

1.4. ELKARGOKIDETZAREN EGOERA

2018ko abenduak 31an elkargokide kopurua: **691**

Bajak 2018. urtean: 23
Altak 2018. urtean: 37
70 pertsona jubilatu daude elkargokideen artean.

1.5. LAN-TALDEAK

1.5.1 DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN ALDAKETA (DSBE)

2017. urtean, Eusko Legebiltzarrak DSBEaren aldaketaren inguruan eztabaidatzeko parte-hartze prozesua abiaraztea adostu zuen, diru-sarreren errenta hobetzeko egindako ikerketaren ondoren eta oinarrizko agiri bat landu ondoren.
EH Bilduko parlamentaria den Nerea Kortajarena hiru Elkargoko ordezkariekin bildu zen, Gizarte Langileen ikuspuntuak ezagutzeko.

2018. urtean ere, berarekin bildu gara (uztailean) DSBE eta beste gai batzuen inguruan mintzatzen jarraitzeko, hauen artean, Gizarte Zerbitzuen Legea eta etorkizunean jarraitu beharreko ildo estrategiko soziosanitarioak.

1.5.2 GENERO INDARKERIAREN AURKAKO ESTATU HITZARMENA

Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Hitzarmena 9/2018 Errege Dekretu Legearen bitartez onartu ondoren, Kontseilu Orokorrak Errege Dekretu honek eragina izango duen arlo desberdinetako arduradunekin biltzeko deialdi desberdinak egin zituen, Elkargoarteko egituratik estrategia bateratua egiteko asmoarekin.

Gipuzkoako Elkargotik, berdintasun/emakume/genero-indarkeria…arloan lan egiten dutenei galdetegi bat betetzeko eskatu genien, Gizarte Zerbitzuetatik genero indarkeria egoerak zer modutan akreditatzen ziren jakiteko. Erantzuna ona izan zen, 15 pertsonek parte hartu zuten galdetegian.

Ondoren, Gipuzkoako lan-talde bat osatzeko deialdia egin genuen, arautegi berriaren aplikazioak eta nahi ta nahiez Gizarte Zerbitzutan ekarriko dituen aldaketen inguruan eta zer nolako eragina izango duen Gizarte Langileen egunerokotasunean lan egiteko moduaren inguruan azterketa egiteko. Pertsona batek bakarrik erakutsi zuen lan-taldean parte hartzeko borondatea.

Gaiari lotuta, Gipuzkoako Elkargotik Gizarte Langile forentseen Elkartearekin bat egin genuen eta "Genero-indarkeriaren biktimak deklarazioak egiteko praktika onen gidan" Gizarte Langintzaren diziplina aipatu ere ez delako egiten, funtzioak psikologoek berenagatuz, horrelako konplexua den arazo bati diziplina anitzeko eta espezializatuta dagoen erantzunik eman gabe, genero indarkeriari nahi eta nahiez diziplinarteko erantzuna eman behar zaio.

1.5.3 ESTATU MAILAKO TALDEA – GIZARTE ZERBITZUEN EREDUA

2017. urteko ildo beretik jarraituz, Kontseilu Orokorrak gidatu du lan-taldea eta Elkargoen Gizarte Zerbitzuaren ereduaren lanketan jarraitu dute. 2018ko apirilan, Navacerradan (Madril) topaketa antolatu zen gai-bloke hauek lantzeko.

- ✓ 1go blokea: Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoaren funtsa eta helburuak.
- ✓ 2. blokea: Egitura. Eskubide subjektiboa. Zerbitzu eta prestazioak. Estaldura.
- ✓ 3. blokea: Eskuduntza eta finantziazioa. Beste sistemekin erlazioa. Hirugarren Sektorea eta ekimen pribatua.
- ✓ 4 blokea: Gizarte lana erreferentziako lanbidea. Ratioak.

Aldi berean, topaketa honetan, Elkargoek egindako ekarpenen ostean, Alikante, Leon, Asturias eta Gipuzkoako ordezkariei deialdia egin zitzaien taldeko ordezkari lanetan ariteko, bloque bakoitza lantzeko. Gipuzkoak hirugarren blokea landu zuen. Oso positibotzat jo zen Navacerradako topaketa, Gizarte Zerbitzuen XX. Mendeko eredua "aurrekoa eta etorkizunekoa" bezela kalifikatu zuten Gizarte Zerbitzuen XXI. Mendekoa izateko bidea hartuz.

1.5.4 HAUR ETA NERABE GAIETARAKO ESKUALDEKO TALDEAK (HNET)

AURREKARIAK 2017

2017ko abuztuak 2an, Gipuzkoako Foru Aldundiak Lizitazio iragarkia atera zuen, babes teknikoko zerbitzua kontratatzeko Gizarte Politikako Departamentuari atxikituta, haur eta nerabeen babes gabezi egoerak baloratzeko eta babesgabezi egoera larrietan koordinazioa egiteko. Argitaratutako baldintzak aztertu ondoren eta egun indarrean dagoen legedia (Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legea, Haurren eta Nerabeen Arreta eta Babeserako 3/2005 Legea, Gizarte Zerbitzuetako euskal sistemako Zerbitzuen eta Prestazioen Karterako 185/2015 Dekretua), baldintza teknikoei zegokion IX. Atalak, Kontratazioaren xede den taldearen osaera, Gizarte Lanean Gradua edo Diplomatura dutenek lan-taldean sartzeko dituzten aukerak arrazoirik gabe mugatuta gelditzen dira, erabateko diskriminatzailea izanik. Eta Klausula Administratibo Partikularreko Baldintzetako 18.2.1. artikuluan jasotzen diren balorazio irizpideak ere diskriminazio hau erraztu daiteke.

Beraz, ezarritako baldintzak Gizarte Langileen eskubideak urratzen dituztela adostu ondoren, Gipuzkoako Errekurtso Kontraktualetako Foru Administratibo Epaitegian Baldintza hauek inpugnatzea erabaki zen, lizitazio iragarkia 2017ko abuztuak 2an argitaratu zen GAOn.

Ondoren, Epaitegi honek Gizarte Politikako Departamentuko Haurren eta Nerabeen Arretarako Zerbitzutik eta Idazkaritza Teknikotik txostenak jaso zituen, espedientearen kopia igorri zuten eta eskatutako bertan behera uzteko behin-behineko neurria atzera botatzeko eskatu zioten epaitegiari.
EKIA Esku-hartze psikosozialeko entitateari honen berri ematen zaio, alegazioak aurkezteko.

Irailaren erdialdean, kontrataziorako prozeduraren tramitazioa eten egiten da errekurtsoari irtenbidea eman arte, 2018. urtearen hasieran izatea espero da.

2018

Aurkeztutako errekurtsoa atzera bota zuen auzitegiak 2018ko martxoan. Kontratatu genituen abokatuek Justizia Auzitegi Nagusira ez jotzea gomendatu ziguten zeren eta ondorietako bat guretzako kaltegarria izan zitekeen eta gainera kostu ekonomiko handia suposatuko zigun Elkargoari.

Prozesuaren zehar, Kontseiluko Aholkularitza juridikoari ere aholkua eskatu genion, baita SECUM entitateari ere (Merkatuen Batasunerako Kontseiluko Idazkaritza). SECUMek txosten orientatzaileak lantzen ditu eta kasu honetan, Foru Aldundiak aurkeztu zituen argudioak arrazoizozkoak direla eta legearekin bat egiten zutenak zirela esan zuen. Kontseilutik ere aurrera ez jotzea gomendatzen digute, aurreko esperientzia batzuk kontutan hartuta, eta beraz, Elkargoko Gobernu Batzordeak aurrera ez egitea erabakitzen du.

1.5.5 EUTANASIA ARAUTZEKO LAN-TALDEA

2018 urtearen erdialdean eta Kontseilu Orokorrak proposatuta, eutanasia arautzeko Lege Organikoaren proposamenaren inguruan lan egiteko lan-taldea sortu zen, Elkargoek proposatutako adituez osatutako lan-taldea. Gipuzkoatik Carmen Valois izendatu zen, Gobernu Batzordeko Diruzaina eta Donostiako Ospitaleko Asistentziazko Etika Batzordeko kidea.

Kontseiluko lan-planeko ardatzak jarraituz, ondorengo ildoak lantzea eskatu zaie:

- Konpromiso politiko sozialeko ardatza
- Esku-hartze arloko ardatza
- Komunikazio ardatza

2. ELKARKOKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

2.1 INFORMAZIO ZERBITZUA ETA AHOLKULARITZA PROFESIONALA

Elkargoak **Informazio zerbitzua** eskaintzen du elkargokide guztientzako. Astero, buletin berri emailea igortzen da eta bertan, barne kontuak, lanekoak, prestakuntza, legeak, bibliografia eta informazio orokorrak agertzen dira.

Gainera, **aholkularitza profesionala** ere eskaintzen da. Elkargokideen eskaerak jasotzen dira, telefonoz, emailez edota era presentzialean.
Zerbitzua horrela banatzen da:

- Kontsulta teknikoak: Idazkari Teknikoak ematen die irteera, lan dokumental osagarria suposatzen du.
- Kontsulta administratiboak: Idazkariak edo administrariak konpontzen ditu momentuan. Emailez edo telefonoz jasotzen dira.
- Kontsulta juridikoak: **Gizarte Langintzako Kontseilu Orokorreko Aholkularitza Juridikoaren** babesa du Elkargoak, izaera juridikoa duten kontsultei irteera emateko.

2.2 OPOSAKETAK ETA EPAIMAHAIAK

Administrazio barnean ematen diren hautaketa prozesuetako epaimahaietan Elkargokideen partaidetza erraztea da Elkargoak eskaintzen duen zerbitzuetako bat, 18/1997 legeak, Lanbide Tituludunetan aritzeari eta Profesional Elkargo eta Kontseiluei buruzkoa, dionarekin bat eginez.

Erantzukizun handiko funtzioa da hau, lan asko suposatzen duena, hala ere jarraitzea beharrezkoa dela deritzogu, garrantzi handia delako Elkargoa hautaketa prozesuetan presente egotea, eskaintzen duen segurtasunarengatik.

2.3 HAUTAKETA PROZESUEN JARRAIPENA

ORIENTZATZAILEEN LAN-POLTSA (IVAP)

2017ko urtarrilean, IVAPek (Herri arduralaritzaren euskal erakundea), hainbat lan-poltsa sortzeko deialdia luzatu zuen, hauen artean, orientatzaileak. Hiru Elkargoek gorako errekurtsoa jarri genuen. Gizarte Laneko Diplomatuak eta Graduatuak eskatutako titulaziotik kanpo geratzen zirelako.

Gorako errekurtsoa gutxietsia izan zen baina hiru Elkargoek aurrera egitea erabaki zuten, lan poltsaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztuz.

Hilabete asko zain egon ondoren, aurkeztutako errekurtsoaren ondorioz, lekuko-adituen probak aurkezteko deitu ziguten 2018ko urrian.

UNIBASQ, Euskal Sistema Unibertsitarioko Kalitate Agentziako Zuzendaria den Eva Ferreira Garciak eta Angel Elias Ortegak (UPV/EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintzako Fakultateko Dekanoa) testigantza eman zuten. Sententziaren zain gaude bainao abokatuak oso positibotzat jo zituen bi lekukoen adierazpenak, bere txostenean dioen bezala "adierazitako proben emaitzen arabera, orientatzaile postuak eskatzen dituen funtzioak betetzeko erabat prestatuta daude Gizarte Langintzako titulazioa dutenak" "lanerako orientazioa ez da inongo titulazio zehatzen materia espezifiko bat, beraz, egokitasunaren askatasun printzipioa bete behar da".

2.4 LAN-ESKAINTZEN KUDEAKETA

Elkargoak jasotzen dituen lan eskaitzak kudeatzen ditu, eskaintza hauen berri bi modutan izaten du: prentsan edota Aldizkari Ofizialetan **argitaratu** direlako edota lan postua eskaintzen duen **entitatea zuzenean Elkargoarekin harremanetan** jarri delako.

2018. urtean, arlo pribatuko 33 eskaintzen hedapena egin du Elkargoak. Hedapena lan-eskaintzaren berri eduki bezain laister egiten da. Aldi berean, web orriko sarrera mugatuko dagokion atalean zintzilikatzen dira.

Adminsitrazioari dagokionean, hamalau lan-eskaintza publikoen berri eman da. Osakidetzak eskainitako 16 Gizarte Langile plazak eta Gipuzkoako Foru

Aldundiko 25 plazak (2019 urtearen zehar egingo da prozesua) nabarmentzen dira.

2.5 ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Gipuzkoako Gizarte Langintzako Elkargo Ofizialeko Estatutuak onartzen duen 2000. urteko irailaren 4eko Aginduak dionez, 19. artikuluan: *Elkargokideen betebeharrak*, n puntua) *"lanbide profesionalaren jardutearen ondorioz egon daitezkeenondorioengatik,* ***erantzukizun zibileko aseguruaren*** *bidez babestu"*, 18/1997 Legeak 12. artikularekin dionarekin bat eginez.

Elkargokideek honako baldintza hau bete dezaten errazteko, Elkargoak arrazoizko kostua duen asegurua eskaintzen du, Kontseilu Orokorrak nazio mailan sinatutako akordio bati esker, Broker´s 88 izenekoa. 2018. Urtean 6 elkargokidek eskatu dute asegurua eta gaur egun 31 elkargokide daude alta egoeran.

2.6 LIBURUTEGIA

Mailegu zerbitzua eskaintzen da elkargokideei, hamabostaldian lau liburu eskuratu daitezke.

Asko izan Elkargoan urtearen zehar jasotako aldizkari eta agiriak:

- ✓ Servicios Sociales y Política Social (Gizarte Langintzako Kontseilu Orokorra)
- ✓ Trabajo Social y Salud (GL eta Osasun Elkartea)
- ✓ Documentación Social (Caritas)
- ✓ Revista de TS (Catalunyako Elkargoa)
- ✓ Niños de Hoy (ASEFA Elkartea)
- ✓ TS Hoy (Madrileko Elkargoa)
- ✓ Proyecto Hombre
- ✓ Gitanos
- ✓ Perfiles (ONCE)
- ✓ Profesiones (Batasun Profesionala)
- ✓ Hirukide (Federación de familias numerosas de Euskadiko kide ugariko Familien Elkarteen Federazioa)
- ✓ KOOP (Erkide)
- ✓ Agathos
- ✓ Haurdanik (Avaim)
- ✓ TS Difusión (Andaluziako Elkargoa)
- ✓ Cuadernos de TS (Madrileko Unibertsitatea)

- ✓ Entorno Social
- ✓ Gizarteratuz, Eguneratuz, Gizarte (SIIS)
- ✓ Revista de Inmigración

2.7 ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

Elkargoak kolektiboaren beharrak jasotzen ditu eta gai interesgarriei buruzko mintegi eta hitzaldiz osatutako programazioa zehatza sustatzen du.

(Txostenaren 4. atala kontsultatu)

2.8 TEKNOLOGIEN ERABILERA

E-POSTA PROFESIONALA

Kontseilu Orokorrak, Google entitatearekin daukan akordioari esker, e-posta profesionala edukitzeko aukera eskaintzen die elkargokideei, @cgtrabajosocial.com amaierarekin.

11 elkargokidek eskatu dute 2018. urtean e-posta honen aktibazioa.

KOMUNIKAZIOA EMAILEZ

Elkargo eta elkargokideen artean gehien erabiltzen den erreminta da. Elkargokidek bide hau aukeratzen dute galderak, kontsultak, zalantzak…helarazteko. Gainera, astero buletin berri emailea jasotzen dute informazio eguneratuekin.

WEB ORRIA ETA SARE SOZIALAK

www.trabajosocialgipuzkoa.org – www.facebook/trabajosocial.gipuzkoa

Web orrian hainbat atal mugatu daude, elkargokideek soilik sartu dezakete atal hauetara. Facebook da gehien erabiltzen den sare soziala eta Elkargoak jarraitzaile asko ditu. Youtubeko kanal propioa ere badu Elkargoak eta Gobernu Batzordekidek irratian egiten dituzten elkarrizketak, partehartzeak…ivoox sare sozialean gordetzen dira.

ALDIZKARIA "GIZARTE ZERBITZUAK"

Kontseilu Orokorrak aspalditik argitaratzen duen aldizkaria da, gai zehatzei buruzkoa. Urte askotan zehar, Gipuzkoako elkargokide harpidedunak hiru alo jaso dituzte urteko beraien etxetan, hiru aleak 9,90€ren truke.

2018. urtearen zehar, eskaintza mantentzea ezinezkoa dela adierazi digute Kontseilutik, gutxiengo elkargokide kopuru bat izan behar duelako harpidedun eta Gipuzkoa eskatutako gutxiengo horren azpitik dago.

Beraz, aurten Elkargoaren bidez harpidedun izateko aukera desagertu da baino hala ere, nahi dutenen banakako harpidetza egin dezkete Kontseiluaren web orriaren bidez, 29€ren truke hiru ale urteko.

2018ko monografikoak hauek izan dira:

-"Violencias machistas"

-"Ètica y deontología professional"

-"Trabajo Social 2. 0B/Nuevas tecnologías en la intervención professional".

3. PARTAIDETZA ETA ERAKUNDETAN ORDEZKARITZA

3.1 GIZARTE LANGINTZAREN KONTSEILU OROKORRA

Estatuaren zehar banatuta dauden 36 Elkargoen ordezkaria da Gizarte Langintzako Kontseilu Orokorra. 2017. urtean, bi Ohiko Asanblada Orokorra ospatu dira,
Apirilaren 21ean Valentzian eta abenduaren 15ean. Bietara Elkargoko Presidentea, Coro Amunarriz, bertaratu zen.
Apirilaren 20ean, Gizarte Langintzako Estatu mailako Sarien VI. Edizioa ospatu zen eta ospakizuna Valentzian egin zen.

Asanblada hauetan parte-hartzeak garrantzi handia du gure lanbiderako, gai desberdinen inguruan ekintza-emaitza estrategia bateratuak diseinatzen direlako bertan.

Abenduaren 15ean, Ohiko Asanblada Orokorraren batera, Ezohiko Asanblada Orokorra ere ospatu zuten, Kontseiluko Gobernu Batzordeko karguak izendatzeko, hautaketa prozesuaren ondoren.

Emiliana Vicente Gonzálezek hartu zuen Presidente kargua beste Gobernu

Batzordeko karguekin batera, hauen artean, Alvaro Gallo aurkitzen da, Gipuzkoako elkargokide dena eta gure Elkargoko Presidentea izan zena 2014 eta 2016 bitartean. Azpimarratzekoa da, aurreko Presidentea zen Ana Lima, Gizarte Zerbitzuetako Estatu-Idazkaria izendatu zutela, Kontseiluko Presidente karguari uko eginez izendapen honen ondorioz.

FITSen ere (Gizarte Langileen Nazioarteko Federazioa) hautaketa prozesua ireki zuten, hauteskunde deialdia luzatuz Ana Limak Europako eskualdeko Presidentetza utzi ondoren.

Nabarmentzekoak 2018. urtean:

Espainiako Gizarte Zerbitzuen III. Txostena egiten ari da Kontseilu Orokorra. Espainia guztiko Gizarte Zerbitzuetako zentroetan lan egiten duten (lehen arreta eta arreta espezializatua) Gizarte Langilei egindako inkesten emaitzetatik ateratako datuez osatze da txostena. Gipuzkoatik ere inkestetan parte hartzera animatu genituen elkargokideak, ikerketaren garrantzia handia delako.

TOKIKO GIZARTE ZERBITZUEN II ESTATUKO JARDUNALDIAK

Espainia guztiko 300 Gizarte Langile goratik eta beste lanbidetako profesionalak, Gizarte Zerbitzuetako edozein arlotan lan egiten dutenak, bildu ziren ekitaldi profesional honetan, Gizarte zerbitzuetako sare publikoaren analisian oinarritu zena. Rosa Ugalde, Elkargoko Presidenteordea, bertan izan zen, Elkargoa ordezkatzen.

"GIZARTE ZERBITZUEN EREDUA GIZARTE LANGINTZATIK"·

Madrilen ospatu zen apirilaren 6 eta 7an. Lan-taldeko kideei aurreko egunean bertaratzeko eskatu zitzaien, 5ean, azken urtearen zehar landu dituzten blokeetako koordinatzaile gisa diharduteko. Kontseiluak Rosa Ugalderi, koordinazio lan honetan diharduteko eskatu zion.

Ekainaren 12an, **Elkargoetako Koordinatzaile eta Kudeatzaileen arteko Igo topaketa birtuala** ospatu zen, Kontseiluaren egoitzan. Ekainaren 14ean, **Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileen datuen babeserako Gida** aurkeztu zen eta ekainaren 15 eta 16ean **Elkargoarteko Collegium Igo Topaketa** ospatu zen, esperientziak eta praktika onak elkartrukatzeko asmoarekin Elkargo guztietako ordezkariak bertaratu ziren topaketara. Rosa Ugalde ekitaldi guztietan egon zen, Gipuzkoako Elkargoa ordezkatzen.

Aldi berean, Kontseilu Orokorra eta Elkargoetako langileen arteko Igo Topaketa Birtuala ospatu zen. Hainbat gai jorratu ziren, hauen artean, datuen babeserako legedia eta Elkargoen arteko komunikazioaren hobekutza.

3.2 ELKARGOARTEKO BILKURAK

EAEko Elkargo bakoitzak dagokion eskualdean oinarritzen du bere jarduera, elkargoarteko gune hori izanik autonomia ordezkatzeko esparrua. Bertan jorratzen dira Gizarte Zerbitzuekin zerikusia duten gaiak, EAEN eragina izango dutenak. Gainera, estrategia bateratuak, jarraitu beharreko ildoak eta probintzia bakoitzean landu behar diren posizionamendu komunak lantzen dira.

2018. urtean, bilkura bat besterik ez da egin (Skype erabiliz).

3.3 EUSKO JAURLARITZA

BILKURAK	BATZORDEAK	ORDEZKARIA
2018/02/06	Gizarteratzeko Euskal Kontseilua	ERNESTO NOTARIO (BIZKAIA)
2018/01/18 2018/03/26 201/05/15	Familiaren Euskal Kontseilua	JUAN ANTONIO VIÑA (BIZKAIA)
201/06/15	Adinekoen Kontseilu Sektoriala	OLATZ ETXABE (GIPUZKOA)
2018/09/11	Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua	GOTZON VILLAÑO (ARABA)
2018/05/02 2018/12/04	Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua	GOTZON VILLAÑO (ARABA)

3.4 UDALA

BILKURAK	BATZORDEAK	ORDEZKARIA
201/04/19 2018/06/27 2018/12/14	Gizarte Ekintza Kontseilua	**ROSA UGALDE**
2018/05/23 2018/09/28-29	Irisgarritasun Planari buruzko partaidetza prozesua	**ROSA UGALDE**

3.5 UNIBERTSITEAK ETA ELKARGO PROFESIONALAK

3.5.1 UPV/EHU HITZAMENA

2018 urte guztiaren zehar, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Elkargoa EHU/UPVrekin lankidetza hitzarmena sinatzeko lanetan aritu dira, bi entitateen arteko kooperazioa bultzatzeko asmoarekin, Gizarte Langintzaren helburuak lortzera bideratutako asmoak.

Hitzarmena abenduaren 13an sinatu zen.

3.5.2 GIZARTE LANGINTZAKO NAZIOARTEKO III KONGRESUA. GIZARTE LANGINTZAKO FAKULTATE ETA ESKOLEN XII KONGRESUA.

"El Trabajo Social en un mundo en transformación: ¿distintas realidades o nuevos relatos para la intervención?" lema oinarritzat hartuta ospatu ziren Gizarte Langintzako Kongresuaren hitzaldiak, komunikazioak eta partaidetza guneak. Bilbon egin zen, azaroaren 14, 15 eta 16ean.

Elkargoko Diruzaina den Carmen Valoisek mahai-inguru batean parte hartu zuen eta bertan "Unibertsitate-praktika profesionala harremanari begirada" gaia jorratu zuen.

3.5.3 GIZARTE LANGINTZAKO XI. JARDUNALDIA

"Hiritartasuna eta aterpea, Gizarte Langintzaren Eskuhartzea" izan zen leloa, Arabako Gizarte Langintzako Elkargoak eta UPV/EHUk antolatutako jardunaldia. Gipuzkoako Elkargoko ordezkariak ere bertaratu ziren.

4 . FORMAZIOA

Prestakuntza da Elkargoko apusturik handienetakoa, prestatzeko balio duen erreminta delako eta Elkargoa lanbideari, ikasleei, elkargokideei eta elkargokide ez direnei hurbiltzeko balio duelako, baita beste giza zientzien arloko hainbat profesionalei.

140 pertsonek parte hartu dute, hitzaldi/kurtso desberdinetan banatuta.

NOIZ	KURTSOA / HITZALDIA	HIZLARIA	PARTAIDE KOPURUA
Martxoa	Kasu praktikoak	Loredi Salegi	28
Martxoa	GIZARTE LANGINTZAKO MUNDUKO EGUNA	Elkargokideekin bazkaria eta GOIENERekoekin solasaldia	24
Apirila	Bitartekaritza teknikak	Mercedes Lezaun Bitartekaria	8
Maiatza	Zainketa paliatiboak eta arreta doluan	Lori Thompson. Psikologa klinikoa	4
Maiatza	Emozioen kudeaketa arlo profesionalean	Lorena Pidal. Psikologoa. Jesús Hernández Aristu	30
Urria-otsaila	Adin nagusikoei arreta integralean Aditua	Rosa Gómez Trenado Gizarte Langilea	25
Urria	Maskulinitatea, Berdintasuna eta baloretan aldakuntza	Gizonduz. Emakunde	4
Azaroa	Bitartekaritza teknikak	Mercedes Lezaun. Bitartekaria	8
Abendua	Desgaitasuna eta Gizarte Zerbitzuak	Rosa Ugalde eta Mikel Malcorra. Elkartu	9

"Entzute aktiboa" kurtsoa (maiatzerako aurreikusita zegoen) eta "Komunikazio gaitasunak asistentziazko praktikan" kurtsoa (azarorako) bertan behera utzi ziren, gutxieneko inskripzio kopurua bete ez zelako.

Ekainean, prestakuntza beharrei buruzko galdetegia igorri genien elkargokide guztiei. 100 erantzunetik gora jaso ziren eta formakuntza berriak antolatzeko orduan baloratzen dira.

5 . GIZARTE LANA BALIOZTATUZ

5.1 KODE DEONTOLOGIKOAREN EDIZIO BERRIA

2018.urtearen zehar, Gizarte Langintzako Kode Deontologikoaren berrargitalpena onartu da, Gizarte Laneko printzipio etikoak gehituko zaizkio, FITSek (Gizarte Langileen Nazioarteko Federazioa) onartu zituenak joan uztailean Dublinen ospatu zuten Asanbladan.
Gipuzkoako Elkargoak kode berriaren aleak (paperean) eskatu ditu elkargokide guztietan, hauek etxean jasoko dute.

5.2 GIZARTE LANGINTZAREN MUNDUKO EGUNA

Martxoaren 20ean ospatu genuen **"Elkarrekikotasuna eta ingurumenaren jasangarritasuna sustatuz".**

Kolektiboa bildu eta hausnarketarako gunea sortzea da helburua, elkarren artean ezagutzera ematea eta berezko eguna ospatzea, kolektiboa osatzen dugun Gizarte Langileok biltzeko leku bat eduki dezagun eta harreman estuagoak lantzeko aukera edukitzeko, talde nortasunaren eraikuntza babestuz.Helburu horrekin, Donostiako jatetxe batean bazkaria antolatu zen eta elkargokide guztiei gonbidatu zitzaien parte hartzera. 2. argazki lehiaketa antolatu zen eta urteko lemarekin zerikusia zuten irudiak helarazteko eskatu genien elkargokideei. Goiener erakundea (Energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperativa) gonbidatu genuen jasangarritasunari buruzko solasaldia eskaintzeko.

5.3 NOMENKLATURA ZUZENA ERABILIZ

2018. urtearen zehar, Gipuzkoako Udaletxe guztiei gutuna igorri zaie, hautaketa prozesuetako iragarkietan termino zuzena erabiltzeko gomendioa eginez, hau da, Gizarte Langilea eta ez, Gizarte Laguntzailea, hainbat alditan ikusi dugun bezala. Andoain eta Astigarrako Udalek zuzenketa egin zuten idatzia jaso ondoren.

Aldi berean, komunikabideei ere idatzia igorri genien, terminologia zuzena erabiltzera animatuz.

5.4 GIZARTE LANA EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMAN

Abenduaren erdialdean, EAEko hiru Elkargo Ofizialek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari zuzendutako idatzia igorri genuen, Hezkuntza Sailan egun dauden hiru Gizarte Langile plazetako bat amortizatzeko dagoen arriskuaren aurrean gure kezka adieraziz.

Gaur egun 3 Gizarte Langile daude EAE-ko derrigorrezko hezkuntza sisteman.

Ekainaren 21an, gizarte langile hauek agerraldia egin zuten Legebiltzarreko Heziketa Batzordean. Bertan, hezkuntza sistemak eratzen dituen erronkei aurre egiteko Gizarte Langileek egin dezazketen ekarpenak aurkeztu zituzten.

Abenduan, gizarte langileen figura profesionala hezkuntza-sisteman mantentzeari buruzko akordioa lortu zen aho batez Hezkuntza Batzordean. Akordio honetan, Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari Gizarte Langileek orain arte egindako lanaren ebaluazioa egiteko eskatu zion. Gizarte Langile hauetako batek 2019. urtean erretiroa hartuko du eta ebaluazioaren emaitzak jaso arte ez dezatela posturik amortizatu eskatu da, ebaluazioa 2019. urtearen zehar egingo da.

5.5 PRAKTIKA PROFESIONALAK

Elkargotik, lanean dauden elkargokide guztiei gonbidapena luzatu zitzaien, beren lantokietan ikasleak hartzeko, Gizarte Laneko praktikak egiteko.

5.6 ELKARGOA KOMUNIKABIDEETAN

Zenbait komunikabidetan agertu ginen 2018. urtearen zehar.

- 2018.03.20 Onda Cero. "Gipuzkoa en la onda" programa. Elkarrizketa Coro Amunarrizei, Gizarte Langintzaren Munduko Eguna zela eta.

- Diario Vasco. 2018.11.24 *"El problema de no acceder a recursos sociales si no se presenta denuncia. Los trabajadores sociales de Gipuzkoa urgen cambios legislativos para que puedan acreditar como víctima a una mujer sin necesidad del paso judicial previo".*

5.7 ATXIKIMENDU KANPAINA

"No más piedras" Amnistia Internazionaleko kanpainari atxikitu ginen Elkargo bezala, beste majina bat erakundekin batera, Espainian sexu-erasoetako biktimek bizitzen ari diren egoeraren aurrean.

5.8 HITZALDI INFORMATIBOA DEUSTUKO UNIBETSITATEAN

Azken urtetan bezala, 2018ko apirilaren 24ean, Deustuko Unibertsitateko Gizarte Laneko azken mailako ikasleengana jo genuen, haiekin solasaldia edukitzeko.

5.9 ELKARGOKIDETZA KANPAINA

Elkargoko 2017-2021 Plan Estrategikoaren barruan, 2017. Asanbladan aurkeztu zena, kolegiazio kanpaina abiatu da. Gizarte langintza bistaratzeko eskatzen diegu Gizarte Langile elkargokide guztiei, sinatzen dituzten txostenetan, agirietan, korreoetan…beraien elkargokide zenbakiarekin sinatzera animatzen ditugu. Kartel bat ere egin zen, jeitsi ahal izateko eta hedapena egiteko, sare sozialetan, lankideei igorriz, lantokietan ipintzeko….

Gipuzkoako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofiziala

2017-2021 Plan Estrategikoa

Elkargoko 2017 eta 2021 bitarteko Plan Estrategikoarn esparruan eta etapa honetan jarraitu beharreko gida gisa, aurrera eraman beharreko proiektuak zehazten doaz jardueren ildo eta akzio ezberdinekin.

1.- IZAERA (Xedea)

2.- LAN ARDATZAK

3.- AHALEZKO EKIMENAK

1.- IZAERA (Xedea)

Lanbidearen egoera Gipuzkoan ezagutu eta ezaguarazi, elkargokideen beharrei erantzuna eman eta dituzten interesak defendatu, partaidetza eta ekintza kolektiboa sustatu, jarduera profesionala hobetu, lanbidea ordezkatu eta administrazio publiko eta gizartearen aurrean ikuspuntua jakinarazi, hiritarrei kode deontologikoan bilduta dauden balore etikoekin bat egiten duen jarduera profesionala bermatu.

Lan ardatzak

✉ Javier Barkaiztegi, 21, sol.art. C 20010 Donostia - T: 943 473 287 gipuzkoa@cgtrabajosocial.es
www.trabajosocialgipuzkoa.org

GIPUZKOAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE GIPUZKOA

LAN ARDATZA

AHALEZKO EKIMENAK

Lanbidea Administrazio Publikoan, Hirugarren Sektorean eta aholku-emaile erakundetan ordezkatu

- 2019ko maiatzako hauteskundeen ondoren, Elkargoaren aurkezpena egin erakunde publikoetan, kolaboratzaile esanguratsuen babesarekin.
- Kontseilu eta erakundeen mapan Elkargoak zer lekua duen baloratu. Komeni den lekuan gauden aztertu.
- Gobernu Batzordekideak ez diren ordezkariak bilatu, modu koordinatuan lan egiteko.

Babes sozialeko sistemarekiko dugun ikuspuntua gizarteari helarazi

- Hausnarketa jardunaldia antolatu urtero eta konklusioak eta gizarte langileen balorazioak hiritar gipuzkoarrei helarazi.
- Gaurkotasuna duten babes sozialeko gaien inguruan Elkargoko posizionamenduak zehaztu, berriro ere sektoreko profesionalen babesa bilatu (zuzenean haiengana jo) proposamenak luzatu ahal izateko.
- Kanpo komunikazioa nola antolatu behar den pentsatu.

Hiritarren eskaerak artatu profesionalen okerreko praxietan

- Honelako egoerak ematen direnean, jarduera protokoloak eskuratu (ez badaude) eta hauek aplikatzeko jakitun direnen pertsonekin kontatu.
- Elkargokideei protokolo hauen berri eman.
- Elkargoko web orrian eta beharrezkoa den lekuetan ardura honen berri eman.

✉ Javier Barkaiztegi, 21, sol.art. C 20010 Donostia - T: 943 473 287 gipuzkoa@cgtrabajosocial.es
www.trabajosocialgipuzkoa.org

GIPUZKOAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA

COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE GIPUZKOA

LAN ARDATZA

AHALEZKO EKIMENAK

Lanbidea Administrazio Publikoan, Hirugarren Sektorean eta aholku-emaile erakundetan ordezkatu

- 2019ko maiatzako hauteskundeen ondoren, Elkargoaren aurkezpena egin erakunde publikoetan, kolaboratzaile esanguratsuen babesarekin.
- Kontseilu eta erakundeen mapan Elkargoak zer lekua duen baloratu. Komeni den lekuan gauden aztertu.
- Gobernu Batzordekideak ez diren ordezkariak bilatu, modu koordinatuan lan egiteko.

Babes sozialeko sistemarekiko dugun ikuspuntua gizarteari helarazi

- Hausnarketa jardunaldia antolatu urtero eta konklusioak eta gizarte langileen balorazioak hiritar gipuzkoarrei helarazi.
- Gaurkotasuna duten babes sozialeko gaien inguruan Elkargoko posizionamenduak zehaztu, berriro ere sektoreko profesionalen babesa bilatu (zuzenean haiengana jo) proposamenak luzatu ahal izateko.
- Kanpo komunikazioa nola antolatu behar den pentsatu.

Hiritarren eskaerak artatu profesionalen okerreko praxietan

- Honelako egoerak ematen direnean, jarduera protokoloak eskuratu (ez badaude) eta hauek aplikatzeko jakitun direnen pertsonekin kontatu.
- Elkargokideei protokolo hauen berri eman.
- Elkargoko web orrian eta beharrezkoa den lekuetan ardura honen berri eman.

✉ Javier Barkaiztegi, 21, sol.art. C 20010 Donostia - T: 943 473 287 gipuzkoa@cgtrabajosocial.es
www.trabajosocialgipuzkoa.org

GIPUZKOAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE GIPUZKOA

BALANTZE EKONOMIKOA 2018

AKTIBOA	2018	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2018
B) AKTIBO ZIRKULATZAILEA		**A) ONDARE GARBIA**	
II. Zordun komertzialak eta besteak		A-1) Fondo propioak	
3. Beste zordunak	3,56	V. Aurreko ekitaldien emaitzak	103.222,64
Guztira II.	3,56	VII.Ekitaldiko emaitzak	26.802,29
VI. Efektiboa eta beste aktibo likidoak		Guztira A-1)	130.024,93
Guztira VI.	**154.792,80**		
		B) PASIBO EZ ZIRKULATZAILEA	
		II. Epe luzean zorrak	
		Guztira II.	21.824,72
		C) PASIBO ZIRKULATZAILEA	
		IV. Hartzekodun komertzialak eta besteak	
		Guztira IV.	2.946,71
GUZTIRA AKTIBOA	**154.796,36**	**GUZTIRA PASIBOA**	**154.796,36**

GIPUZKOAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE GIPUZKOA

GALERAK ETA IRABAZIAK 2018

1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	**107.364,75**
7050002 ELKARGOKIDE KUOTAK ETA MATRIKULAK	97.349,31
7050004 KURTSOENGATIK DIRU-SARRERAK	7.485
7050001 LIBURUEN SALMENTA	770
7050006 G.L. MUNDUKO EGUNARENGATIK DIRU-SARRERAK	319
7050007 KONTSEILU OROKORREKO ASANBLADAK DIRU-SARRERAK	1.441,44
4. Zuzkidurak	**-2.874,90**
6000001 LIBURUEN EROSKETA	-828,91
6000003 LIBURUTEGIRAKO LIBURUEN EROSKETA	-19
6000002 KONTSEILU OROKORREKO ALDIZKARIAREN HARPIDETZA	-1.947
6000005 BESTE ALDIZKARIEN HARPIDETZA	-79,99
6. Langileen gastuak	**-47.975,76**
6400000 SOLDATAK ETA LANSARIAK	-36.558,31
6420000 GIZARTE SEGURANTZA ENPRESAREN KONTURA	-11.344,35
6430000 EPE LUZEKO EKARPEN ZEHAZTUTAKO SISTEMAREN ORDAINKET	-73,10
7. Beste ustiapen-gastuak	**-29.553,12**
6210001 RENTING FOTOKOPIAGAILUA	-109,18
6200000 KONPONKETA ETA MANTENTZE LANAK	-248,05
6230001 AHOLKULARITZA	-2.468,40
6230002 ABOKATUAK	-103,64
6230003 HIZLARI KOLABORATZAILEAK	-3.187
6230009 KONTSEILU OROKORRA AUTOLIKIDAZIOA	-11.258,74
6230005 G.L. MUNDUKO EGUNAK GASTUAK	-1.703,68
6230007 KONTSEILU OROKORREKO ASANBLADA GASTUAK	-834,31
6230008 GOBERNU BATZORDEAREN PARTAIDETZA JARDUNALDIETAN	-1.251,17
6250000 ASEGURU PRIMAK	-479,85
6260000 BANKETXE ZERBITZUAK ETA ANTZEKOAK	-255,12
6280001 ARGI HORNIDURA	-1.028,26
6280002 ZABORRAK UDALA	-415,53
6290001 OSTATUA, OTORDUAK eta JOAN-ETORRIAK	-656,89
6290003 POSTA ZERBITZUA	-872,27
6290004 BESTE GASTUAK	-994,13
6290005 GARBITASUNA	-91,99
6290006 TELEFONOA	-625,40
6290007 FOTOKOPIAK	-383,67
6290008 BULEGOKO MATERIALA	-812,83
6290009 KOMUNITATE GASTUAK	-944,27
6290011 MANTENIMENDU INFORMATIKOA	-213,16
6290012 OMENALDIAK ETA SARIAK	-278,30
6310001 LOKALEKO OHZ	-337,28
12. Beste emaitzak	**-0,14**
A) USTIAPEN EMAITZA (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12)	**26.960,83**
13. Finantza diru-sarrera	**18,71**
b) Beste finantza diru-sarrera	18,71
7690000 Beste finantza diru-sarrera	18,71
14. Finantza gastuak	**-177,25**
6623000 kredito erakundeekin zorren interesak	-177,25
B) FINANTZA EMAITZA (13+14+15+16+17+18)	**-158,54**
C) EMAITZA ZERGEN AURRETIK (A+B)	**26.802,29**
D) EKITALDIKO EMAITZA (C+19)	**26.802,29**

GIPUZKOAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE GIPUZKOA

AURREKONTUA 2019

1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	**99.500**
7000001 UDALETXEENTZAKO EGINDAKO LANAK	0
7050001 ELKARGOKIDE KUOTAK ETA MATRIKULAK	94.000
7050002 BESTELAKO DIRU SARRERAK	0
7050003 BESTELAKO KURTSOENGATIK DIRU-SARRERAK	5.000
7050006 G.L. MUNDUKO EGUNARENGATIK DIRU-SARRERAK	300
7050007 KONTSEILU OROKORREKO ASANBLADAK DIRU-SARRERAK	200
4. Zuzkidurak	**-400**
6000003 LIBURUTEGIRAKO LIBURUEN EROSKETA	-300
6000005 BESTE ALDIZKARIEN HARPIDETZA	-100
6. Langileen gastuak	**-55.075**
6400000 SOLDATAK ETA LANSARIAK	-40.000
6420000 GIZARTE SEGURANTZA ENPRESAREN KONTURA	-15.000
6430000 EPE LUZEKO EKARPEN ZEHAZTUTAKO SISTEMAREN ORDAINKET	-75
7. Beste ustiapen-gastuak	**-58.400**
6210001 RENTING FOTOKOPIAGAILUA	-1.100
6200000 KONPONKETA ETA MANTENTZE LANAK	-20.000
6230001 AHOLKULARITZA	-2.472
6230002 ABOKATUAK	-5.000
6230003 HIZLARI KOLABORATZAILEAK	-3.000
6230004 ELKARGO KIDEEN KARNETAK	-150
6230009 KONTSEILU OROKORRA AUTOLIKIDAZIOA	-12.000
6230005 G.L. MUNDUKO EGUNAK GASTUAK	-1.000
6230007 KONTSEILU OROKORREKO ASANBLADA GASTUAK	-1.000
6230008 GOBERNU BATZORDEAREN PARTAIDETZA JARDUNALDIETAN	-2.000
6250000 ASEGURU PRIMAK	-475
6260000 BANKETXE ZERBITZUAK ETA ANTZEKOAK	-252
6280001 ARGI HORNIDURA	-1.000
6280002 ZABORRAK UDALA	-390
6290001 OSTATUA ETA JOAN-ETORRIAK	-1.700
6290003 POSTA ZERBITZUA	-1.000
6290004 BESTE GASTUAK	-596
6290005 GARBITASUNA	-120
6290006 TELEFONOA	-700
6290007 FOTOKOPIAK	-400
6290008 BULEGOKO MATERIALA	-900
6290009 KOMUNITATE GASTUAK	-1.000
6290011 MANTENIMENDU INFORMATIKOA	-1.000
6290012 OMENALDIAK ETA SARIAK	-300
6290013 BARNE PRESTAKUNTZA	-500
6310001 LOKALEKO OHZ	-345
A) USTIAPEN EMAITZA (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12)	**14.375**
13. Finantza diru-sarrera	0
b) Beste finantza diru-sarrera	0
7690000 Beste finantza diru-sarrera	0
14. Finantza gastuak	**-26**
6623000 kredito erakundeekin zorren interesak	-26
B) FINANTZA EMAITZA (13+14+15+16+17+18)	-26
C) EMAITZA ZERGEN AURRETIK (A+B)	**14.401**
D) EKITALDIKO EMAITZA (C+19)	**14.401**